

## **Merkatuaren segmentazioa:**

Irakaskuntzarako diseinatutako mahaia merkatuan kokatzeko orduan, garrantzitsua da erabiltzaileen behar eta ezaugarri espezifikoak kontuan hartzea. Produktu honek teknologia integratua (pantaila interaktiboa) barne hartzen duenez, segmentazioa hainbat irizpideren arabera egin daiteke:

### **1. Bezero motaren arabera**

Hezkuntza-zentroak ( DBH, Batxilergoa): Mahaia ikasgelako espazio tradizionala modernizatzeko eta ikaskuntza interaktiboa sustatzeko proposa da. Irakasleek zein ikasleek baliatu dezakete.

Unibertsitateak eta hezkuntza espezializatua: Diseinu ergonomiko eta teknologiko aurreratuak ikerketa-gune edo laborategi didaktikoetan erabilera egokia eskaintzen du.

Akademiak eta prestakuntza-zentroak: Formazio tekniko edo artistikoetan, pantaila digitalak ariketa praktikoak errazten ditu.

Administrazio publikoak eta udal hezkuntza programak: Eskola publikoen digitalizazio proiektuetarako.

### **2. Funtzioen eta beharren arabera**

Digitalizazio beharra duten ikasgela modernoak: Pantaila integratuak eduki digitalak modu zuzenean lantzea ahalbidetzen du.

Irakaskuntza kolaboratiboan oinarritutako espazioak: Mahaia ikasleen autonomia eta interakzioa sustatzeko egokia da.

Irigarritasun edo ergonomia beharrak dituzten zentroak: Diseinu sinplea, altuera egokia eta erabilera erraza.

### **3. Baliabide ekonomikoen arabera**

Aurrekontu handiko hezkuntza-zentroak: Teknologia integratua duten altzari berritzaileetan inbertitzeko prest dauden zentroak.

Aurrekontu ertainak dituzten eskolak: Ekipamendu digital progresiboa ezartzeko bidean daudenak.

